



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

IV. Legegintzaldia

Iruñean, 1998ko urtarrilaren 12a

3 ZK.

A U R K I B I D E A

D SAILA:

Hitzarmenak:

—Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arteko Lankidetzaren Hitzarmena, FEOGA-bermearen konturako laguntzen aurrefinantziatorako (2. or.).

F SAILA:

Galderak:

—Zabortege eta hondakindegia inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzko galdera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak egina (6. or.).

G SAILA:

Jakinarazpenak, Deialdiak eta Oharrak:

—1997ko abenduan Biltzarrean izan diren altak eta bajak (7. or.).

—M^a José Pérez de Eulate Urrea andrea «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldean sartzea (7. or.).

—Pedro M^a Antuñano Zárraga jauna «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldean sartzea (7. or.).

—«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osaketa (8. or.).

—«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen osaketa (8. or.).

—«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen Bozaramaileak bozeramailetzari uko egitea (8. or.).

—«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen Bozaramailearen izendapena (9. or.).

—«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen Bozaramailearen izendapena (9. or.).

I SAILA:

Parlamentuko Jarduera:

—1997ko abenduan egindako bilerak (10. or.).

—1997ko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda (12. or.).

D Saila:
HITZARMENAK

Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmena, FEOGA-bermearen konturako laguntzen aurrefinantziatorako

Nafarroako Gobernuak hurrengoari buruzko agiriak bidali ditu: Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren arteko Lankidetzeta-Hitzarmena, FEOGA-bermearen konturako laguntzen aurrefinantziatorako. Horiek Biltzarreko Aldizkari Ofizialean argitara dai-tezen agintzen da, Nafarroako Parlamentuko Erre-gelamenduko 162 artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

**Nafarroako Foru Komunitatearen eta
Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura
Ministerioaren arteko Lankidetzeta-
Hitzarmena, FEOGA-bermearen
konturako laguntzen aurrefinantzia-
ziorako**

Madriren,

BILDURIK

Alde batetik, Loyola de Palacio del Valle-Ler-sundi andrea, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministroa, maiatzaren 5eko 762/1996 Errege Dekretuari jarraiki, Nazioko Gobernuaren ordezkari gisa, Ministroen Kontseiluaren 1995eko uztaila-ren 21eko Erabakiarekin eta Administrazio Publi-koen Araubide juridikoari eta Guziendako Administrazio Prozedurari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen 6.1. artikuluekin bat.

Beste aldetik, Ignacio Javier Martínez Alfaro jauna, Nafarroako Foru Komunitateko Nekazari-tza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilaria.

Elkarri aitortzen diote hitzarmen hau izenpe-tzeko legezko ahalmena, eta horretarako honako hau

ADIERAZTEN DUTE

1.- Kontseiluaren maiatzaren 22ko 1287/95 Erregelamenduak (EB), Nekazaritza Politika Amankomunaren finantziatorari buruzko 729/70 Erregelamendua (EEE) aldatzen duenak, Estatu Elkartekide bakoitzean hainbat Erakunde Ordaintzaile ezartzea ahalbidetzen duela, FEOGA fondoak kudeatzeko, bereziki Berme-atalekoak, horrela-koetan Europako Batzordearen esku jarri beharreko informazioa zentralizatuko duen Koor-dinazio Erakundea beronen solaskide bakarra izango delarik.

2.- 2206/95 Errege Dekretuak aurrakusten duela bere lehen artikuluan Autonomia Erkidego bakoitzak Erakunde Ordaintzaile bakarra baimen-du edo izendatu ahaldu duela ebazteko eta ordaintzeko eskumena duen laguntzetarako, eta bigarren artikuluan koordinazio-erakunde gisa izendatzen duela Espainiako Nekazaritza Berme-ko Fondoa (aurrerakoan F.E.G.A.), abenduaren 28ko 2205/95 Errege Dekretuaren bitartez eratua. Dekretu hori zen Erakunde Autonomoak, Nekaza-ritza Ekoizkinak eta Prezioak Arautzeko eta Anto-latzeko Fondoa (F.O.R.P.P.A) eta Nekazaritza Ekoizkinen Zerbitzu Nazionala (S.E.N.P.A.) Espai-niako Nekazaritza Bermeko Fondoa (F.E.G.A.) izeneko merkataritza- eta finantza-izaerako Era-kunde Autonomoan bat eginarazten zituena.

3.- Batasuneko aipatu Erregelamenduetan, Batzordeak ateratako uztailaren 7ko 1663/95 (EB) Erregelamenduan, zeinak ezartzen baititu (EEE) 729/70 Erregelamenduko aplikazio-xedapenak FEOGAko Berme Ataleko Kontuen Kitapenaren Prozedurari buruzkoan, -Erakunde Ordaintzaileek bete behar dituzten komunitateko antolakuntza-bermeak zeintzuk diren ezartzen dituen-, eta baita abenduaren 28ko 2206/95 Errege Dekretuan ezarritakoaren arabera, izenpetzen duen Foru Komunitateak bere erakunde ordaintzaileari bai-mena eman diola 1996ko abuztuaren 1ean.

4.- 1988 eta ondorengo ekitaldietarako Estatu-ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Legeek ematen

zuten baimenean oinarrituz, Ekonomi eta Ogasun Ministerioak ezarri zituela Altxorretik FORPPAra - gaur egun FEGA-, koordinazio erakunde gisa, joango ziren aurrerakinen sistema egituratuko zuten arauak, FEOGA-Bermeko gastuen finantziazioari aurre egiteko, ondoren kitatu zirenak Europako Batasunak egindako diru-itzulketekin.

5.- Ekonomi eta Ogasun Ministerioaren ondorengo Aginduek ezartzen dutela ezen Espainiako Estatuak Europako Nekazaritza Orientabide eta Bermerako Fondoko (FEOGA- Berme-atala) gastuak ordaintzeko fondoak aurreratzen dituenen, FEGAk, koordinazio-erakunde gisa, bidaliko duela Altxorra eta Finantza Politikaren Zuzendaritza Nagusira lehen aipatutako gastuen hileroko aurreikuspen edo, hala badagokio, aurreikuspen apartekoa. Zuzendaritza Nagusi horrek ezarriko ditu fondo horiek Espainiako Bankuko FEGA-ren kontuan, dagokion aurrekontutik kanpoko eragiketa eginez.

6.- Europako Batasuneko aipatu Erregelamenduen eta 2206/95 Errege Dekretuko 7. artikuluko 2. idazatiaren arabera, Erakunde Ordaintzaileak beste hainbat Estatu Kidetako Erakunde Ordaintzaileekin edo Batzordearekin dituen harreman eta komunikazioak beti ere, Koordinazio Erakundearen (FEGA) bitartez egingo direla.

7.- 2206/95 Errege Dekretuko 10 artikuluko 2. atalak ezartzen duela MAPAk Lankidetzaren Hitzarmenak egin ahalko dituela Autonomia Erkidegoetako Organo eskudunekin, euren Erakunde Ordaintzaileen aurrefinantziazio mekanismoen eraginkortasuna ziurtatzeko.

8.- Orain arte esandakoarekin bat etorriz, bi aldeek izenpetzen dutela hitzarmen hau, FEOGA-Bermeari dagozkion laguntzen ordaintzen aurrefinantziazio nazionalako sistemarako lankidetzaren lerro nagusiak ezartzeko. Ordaintzak 3. puntuan aipaturiko Erakunde Ordaintzaileak egiten ditu, ondoren aipatzen diren baldintzekin bat etorriz:

BALDINTZAK

Lehena: Nafarroako Foru Komunitateak konpromisoa hartzen du kontu zehatz bat irekitzeko, berak nahi duen banku-entitatean, aurrefinantziatorako beharrezkoak diren fondoak bideratzeko, baita FEOGA-Bermearen konturako laguntzen ordaintza guztiak bideratzeko ere.

Kontu honek ezin izango du FEOGA-Bermeari ez dagokion mugimendurik eduki, eta hurrengoak ziurtatuko ditu: jasotako fondo-aurrerakin guztien identifikazio zehatza, egin diren laguntza-ordaintzak eta egin behar ez ziren ordaintzak itzultze-

agatik edo beste edozein zioreratik izandako dirusarrerak.

Autonomia Erkidegoak jakinaraziko dizkio Koordinazio Erakundeari (FEGA) izendatutako banku-entitatea eta kontu zenbakia, baita afera honetan egon litekeen edozein aldaketa ere.

Aurreraturiko fondoaren jatorria kontuan edukiz, FEOGA-Bermearen berariazko kontuan sorturiko interesak osoki likidatuko dizkio Autonomia Erkidegoak FEGARI, eta azken horrek, era berean, Altxor Publikoari igorriko dio likidazioa, arlo horretan indarrean dagoen araudiari jarraituz.

Bigarrena: Altxor Publikoak aurreratuko dizkio FEOGA-Bermearen gastuak ordaintzeko fondoak Koordinazio Erakundeari (FEGA), azken horrek igortzen dituen aurreikuspenen arabera, aurreikuspen hauek bat etorriko direlarik hitzarmena izenpetzen duen Autonomia Elkarteak izendatu duen Erakunde Ordaintzaileak FEOGARA bidaltzen duen aldizkako informazioan, edo beharrezkotzat jotzen den beste edozein informazio gehigarrian, egin dituen gastu-aurreikuspenekin.

Finantza Programazioa egiteko garaian, Altxorrak aurreratzen dituen fondoak optimizatzeko, izenpetzen duen Foru Komunitateak izendatutako Erakunde Ordaintzaileak bidaliko dizkio Koordinazio Erakundeari (FEGA), ezarriko diren epeetan, bi hilabeteko gastuen aurreikuspena, hamabostaldietan banatuta, I. eranskinean aurreikusten denaren arabera.

Erakunde Ordaintzaileak egingo ditu aurreikuspenak ahalik eta fidagarritasun handienarekin, fondo geldiak sorraraz litzaketan desbideraketak edo ordaintzaile aurre egiteko diruzaintza-arazoak saihesteko.

Hirugarrena: Fondoak bidali ahal izateko, Erakunde Ordaintzailearen agintari arduradunak eskatuko dizkio astero Koordinazio Erakundeari (FEGA) behar dituen fondoak, II. eranskinaren ereduaren arabera, Diruzaintzaren egoera kontuan hartuz, aste hartan ordaintzarako onartuta eta baimenduta dauzkan espedientei aurre egin ahal izateko. Eskaera hau fax bidez aurreratu ahal izango da.

Laugarrena: Koordinazio Erakundeak (FEGA) transferitutako ditu eskatutako fondoak lehen klausulan ezarritako kontu zehatzera, ahalik eta azkarren, ordaintzak aurreikusiriko egunean egin ahal izan daitezken.

Une jakin batean nahiko fondorik ez balego Erakunde Ordaintzaileak egiten dituzten eskaera guztiei aurre egiteko, Koordinazio Erakundeak (FEGA) fondoak banatzeko orduan kontuan hartu-

ko ditu ordainketa-epeak, epe horietan luzatzen zein bermaturiko gehieneko kopuruak gairatzen eratorritako zehapenak saihesteko, baita Erakunde Ordaintzaileek egindako programazio finantziaroen fidagarritasun-maila (esan nahi baita, ordainketak eta aurrikuspenak bat etortzea) Bigarren baldintzan ezarritakoaren arabera.

Bosgarrena: Altxorrek laguntzak aurrefinantziatzeko aurreratzen dituen fondoak erregularizatzeko, Erakunde Ordaintzaileak bidaliko dio Koordinazio Erakundeari (FEGA), berariazko kontuaren hileroko egoera, III. eranskinarekin bat etorritik, hilabete horretako banku-laburpenarekin bat, hilabeteko azken egunean itxia.

Seigarrena: Europako Batasunaren eta Estatu Kideen arteko harremanetan indarrean dagoen solaskide bakarrek hatsapena aplikatuz, Nafarroako Komunitateak konpromisoa hartzen du Koordinazio Erakundeari (FEGA) igortzeko, erregelamenduz ezartzen den moduan eta horretarako ezartzen diren epeen barruan, FEOGA-Bermearen fondoak kudeatzeko Europako Batasunak ezarri dituen eskaerak betetzeko beharrezkoa den informazio guztia.

Zazpigarrena: Haien kudeaketatik eratorritako jarduketengatik edo finantza-zuzenketak eragin litzakeen Europako Batasuneko araudiaren edozein arau-hausterengatik izango luketen erantzukizunari dagokionez, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioa eta Nafarroako Komunitatea finantza-erantzukizunaren arloan ezartzen diren araei lotuko zaizkie.

Zortzigarrena: Hitzarmen honek ondorioak izango ditu 1998ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra arte, eta urtebeteko epeetarako luzatzen dela ulertuko da aurretik Autonomia Politikarako Gobernuaren Batzorde Ordezkariek baimena ematen badu, non eta edozein alderdik espreski denuntziatu eta horren berri gutxienez iraungipena baino hiru hilabete lehenago ematen ez duen.

Bederatzigarrena: Hitzarmen honen interpretazioak, aplikazioak eta ondorioek sor litzaketen afera guztiak, euren izaera administratiboa dela eta, jurisdikzio kontentzioso-administratiboaren menpe jarriko dira.

Bat datozela adierazteko, Hitzarmen hau izenpetzen dute era bikoiztuan eta efektu bakarrerako:

Estatuko Gobernuaren aldetik, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministroa, Loyola de Palacio del Valle-Lersundi.

Nafarroako Foru Komunitatearen aldetik, Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura, Ignacio Javier Martínez Alfaro.

I ERANSKINA

KOMUNITATEA/ERKIDEGOA:

ERRAKUNDE ORDAINTZAILEA:

n + 1 eta n + 2 hilabeteetarako finantza-programazioa

Aldiak	Aurreikusitako gastua
1etik 15era
16tik 30 edo 31ra
n + 1 HILABETEA, GUZTIRA.....
1etik 15era
16tik 30 edo 31ra
n + 2 HILABETEA, GUZTIRA

Erakunde ordaintzailearen
ardura duen agintariaren
izenpe-zigiluak eta data.

FEGA. Koordinazio Erakundea

II. ERANSKINA

KOMUNITATEA/ERKIDEGOA:

ERRAKUNDE ORDAINTZAILEA:

Fondoaren eskaria

Badira onetsitako eta ordaintzeko baimena emandako laguntzen espedienteak, hurrengo kopurua jotzen dutenak: pezeta. FEOGA-Bermearen kontura ordaindu behar zaizkie interesdunei, eta, beraz dagozkion aginduak eskatzen dira aipatu kopurua ahalik eta lasterren transferitzeko hurrengo kontu korrontera: k/k zk.; hurrengo FINANTZA ENTITATE-KOA:; hurrengoaren izenean dagoena:

Eskatutako kopuruak hurrengo lerroei dagozkie:

FEOGA LERROAK ZEHAZTAPENA KOP. PTA.TAN.

GUZTIRA :

Erakunde ordaintzailearen
ardura duen agintariaren
izenpe-zigiluak eta data.

FEGA. Koordinazio Erakundea

III. ERANSKINA

GUZTIRA, B

KOMUNITATEA/ERKIDEGOA: _____

ERAKUNDE ORDAINTZAILEA:

C. SALDOA

Diruzaintzaren hileko egoera

...../...../.....(e)an eskueran

.....(e)koren (e)an itxia

GUZTIRA, (A - B)

A. ESKUERAN

1. /...../...../1ean eskueran _____

2.(e)ko hilean jasotako kopuruak, _____

GUZTIRA, A

Erakunde ordaintzailearen
ardura duen agintariaren
izenpe-zigiluak eta data.

B. GASTUAK

Gastuak, hilabetea:

FEOGA-Bermeari egoztekoak _____

(a zutabea, 104 koadroa)

FEGA. Koordinazio Erakundea

F Sails:
GALDERAK

Zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruzko galdera

MARTIN LANDA MARCO FORU PARLAMENTARI JAUNAK EGINA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 30ean egindako bilkuran, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatuak direla-eta Nafarroako Gobernuak dituen aurreikuspenei buruz egindako galderaren biderapena onestea erabaki zuen. Galdegileak idatzizko erantzuna eskatu du.

Erabaki hori betez Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzen da.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

GALDERAREN EDUKIA

Martín Landa Marco Askotariko Parlamentari Taldean den Nueva Izquierdako Foru Parlamentariak, Biltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten du, idatziz erantzun dakion:

Duela gutxi Gobernuak zenbait zabortegei eta hondakindegiei inkontrolatu leheneratzeko lanak burutzea onetsi du, hamaika milioi pezetatan.

Hondakindegiei eta zabortegei inkontrolatuak Parlamentari honen kezka eta zenbaitetan, gainera, ekimen parlamentario batzuen arrazoi izan dira, hala nola galderak, Nafarroako Aurrekontu Orokoretan kasuan kasuko kontusailetan gehikuntzak eskatzea emendakinen bidez eta abar.

Hori guztia dela eta, jakin nahi da:

1. Ea Nafarroako Gobernuak plan zehatzik ote duen hondatutako leku horiek leheneratzeko. Hala bada, zertan datzan plan hori, zein den inbentarioaren arabera ezarri den hurrenkera, zein irizpide erabiliz, ea kalkulatu diren gutxi gora-beherako kostuak eta zein diren leku hondatu horiek deusezteko aurreikusi diren planak (egutegia emanez).

2. Ea Nafarroako Gobernuak aurreikusi ote duen abian jartzea hondakinak berrerabiltzeko plantaren bat, hondatutako lekuak leheneratze lanetan eta birziklatzean batera jarduteko. Hala bada, zein epe aurreikusi den hura abian jartzeko. Kontrako kasuan, zein diren hori ez egiteko dauden arrazoiak.

3. Zabortegei inkontrolatuek edo hondakinak botatzeak kutsaturiko eskualdeetan kutsadura deusezteko plana abian jarri ondoren, zein neurri hartu nahi dituen Gobernuak (orain artekoek baino eraginkortasun handiagoa izango dutenak) eskualde horiek leheneratzearen alde egin den lana alferrik izan ez dadin, hau da, zabortegeiak eta hondakindegia beste leku batera eraman ez daitezen...

Iruñea, 1997ko abenduaren 29an

Foru Parlamentaria: Martín Landa Marco

G Saila:
JAKINARAZPENAK, DEIALDIAK ETA OHARRAK

1997ko abenduan Biltzarrean izan diren altak eta bajak

Bajak: Aladino Colín Rodríguez jauna
Gregorio Martínez Ezcaray jauna

Altak: M^a José Pérez de Eulate Urrea andrea
Pedro M^a Antuñano Zárraga jauna

Iruñean, 1997ko abenduaren 24an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

M^a José Pérez de Eulate Urrea andrea «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1997ko abenduaren 30n egindako bilkuran, M^a José Pérez de Eulate Urrea andrea «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldean sartzeaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

Pedro M^a Antuñano Zárraga jauna «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldean sartzea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 1997ko abenduaren 30n egindako bilkuran, Pedro M^a Antuñano Zárraga jauna «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldean sartzeaz jakitun dagoela adieraztea erabaki zuen.

Iruñean, 1997ko abenduaren 30ean

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen osaketa

M^a José Pérez de Eulate Urrea andrea «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldean sartu berri delarik, Parlamentari Taldea ondoren aipatzen diren Foru Parlamentariak osatzen dute:

Eguren Apesteguía, M^a Dolores
Pinilla Baigorri, Inmaculada
López Mazuelas, Manuel
Ezpeleta Martínez, José María
Sánchez Turrillas, José Javier

Catalán Fabo, Francisca
Apesteguía Jaurrieta, María Asunción
Cristóbal García, Carlos
Platero Alda, Juan Andrés
Ausejo Mozún, Ignacio
Pérez de Eulate Urrea, M^a José
Iruñean, 1997ko abenduaren 31n
Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen osaketa

Pedro M^a Antuñano Zárraga Parlamentari Taldean sartu berri delarik, Parlamentari Taldea ondoren aipatzen diren Foru Parlamentariak osatzen dute:

Alli Aranguren, Juan Cruz
Cortaire Tirapu, M^a Reyes
López Eslava, Luis Gerardo
Villanueva Iturralde, M^a Rosario

Matías Angulo, Inmaculada
Basterra Layana, Andrés
Uriz Lanz, Pedro
Arteaga Olleta, Jesús Javier
Larráyoiz Lezáun, Miguel Angel
Antuñano Zárraga, Pedro M^a
Iruñean, 1997ko abenduaren 31n
Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen Bozeramaileak bozeramailetzari uko egitea

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 16an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“Manuel López Mazuelas Foru Parlamentariak «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen bozeramailetzari uko egiteko idazkia aurkeztu du. Idazki hau ikusia, hona

ERABAKIA:

Lehena.- Manuel López Mazuelas Foru Parlamentariak «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen bozeramailetzari uko egin diola jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko abenduaren 17an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen Bozaramailearen izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“«Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak idazkia aurkeztu du Carlos Cristóbal García jauna izendatuz Parlamentari Talde horretako bozaramaile. Hori ikusirik,

ERABAKI DA:

Lehena.- Carlos Cristóbal García jauna «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldearen bozaramailea izendatu dutela jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen Bozaramailearen izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 1997ko abenduaren 23an egindako bilkuran, Erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“«Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak idazkia aurkeztu du Patxi Zabaleta Zabaleta jauna izendatuz Parlamentari Talde horretako bozaramaile. Hori ikusirik,

ERABAKI DA:

Lehena.- Patxi Zabaleta Zabaleta jauna «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldearen bozaramailea izendatu dutela jakitun dagoela adieraztea.

Bigarrena.- Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.”

Iruñean, 1997ko abenduaren 23an

Lehendakaria: M^a Dolores Eguren Apesteguía

I SAILA:
PARLAMENTUKO JARDUERA

1997ko abenduan egindako bilerak**MAHAIA**

16, 18 eta 24an.

MAHAIA ETA BOZERAMALEEN BATZARRA

2, 9, 16, 23 eta 30ean.

OSOKO BILKURA

10ean:

– Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren aldaketa.

– Nafarroako abelbideei buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Nekazaritza Ustiatzearen Erregistroari buruzko Foru Lege proiektua eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Demokraten Elkargunea Parlamentari Taldeak eta Fermín Ciáuriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak osoko emendakinak aurkeztu dizkiote Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuari. Horiek eztabaidatu eta bozkatzea.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak osoko emendakina aurkeztu dio Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietatearen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuari. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

– Mozioa, Nafarroako Gobernuak hilabeteko epean Nafarroako Toki Administrazioaren egoerari buruzko txosten bat igor dezan. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ezker Abertzalea Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, "Reforma de las Humanidades" deitutako Dekretua gaitzesten duena. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

– Miguel Angel Larráyoz Lezáun Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko mozioa, Nafarroako Gobernuaren premiaz duena Iruñeko irteeretan Tuteran jartzen duten bide-seinaleak jar ditzan. Hori eztabaidatu eta bozkatzea (MOC-66/97). (5. eranskina).

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko mozioa, Estatuaren Gobernuaren premiaz duena Lankidetzari buruzko Lege proiektua egin dezan. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

29 eta 30ean:

– Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordeak 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaz onetsitako irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Ekonomia, Ogasun eta Aurrekontu Batzordea, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietatearen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa zergak, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaz onetsi duen irizpena eztabaidatu eta bozkatzea.

– Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdientarako ezartzen dituen Foru Lege proiektuaz Toki Administrazioari buruzko Foru Lege proiektuaz onetsitako irizpena eta hari mantendutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektuaz Toki Administrazioari buruzko Foru Lege proiektuaz onetsitako irizpena eta hari mantendutako emendakina eztabaidatu eta bozkatzea.

– Nafarroako Foru Komunitatearen eta Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Ministerioaren (MAPA) arteko lankidetzaren hitzarmena eztabaidatu eta bozkatzea, FEOGA-Bermearen konturako laguntzen aurrefinantziatzearen proiektuak.

HERRILAN ETA AZPIEGITURA BATZORDEA

2an:

– Nafarroako Errepideen Plan Zuzentzailea (1998-2005) dela-eta aurkeztu diren proposamenak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkeztutako mozioa eztabaidatu eta bozkatzea, Telefónica-ko Zuzendaritzari eskatzeko Iruñean publikoari erantzuteko duen merkataritza bulego bakarra ixteko hartu duen erabakia birplantea dezala.

OSASUN BATZORDEA

2an:

– Osasun Kontseilariaren eta Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, lan istripuen berri eman dezaten.

**INDUSTRI, LAN, MERKATARITZA
ETA TURISMO BATZORDEA**

4an:

– Industri, Merkataritza, Turismo eta Lan Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, industri sustapenerako laguntzak emateko Europako Komunitateak ezarritako murrizketek gure Komunitatean aurreikusitako industri inbertsioetan izango duten eraginaren berri emateko.

**NEKAZARITZA, ABELTZAINITZA
ETA MENDI BATZORDEA**

4an:

– Nekazaritza, Abeltzaintza eta Elikadura Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, Nekazaritza Ganbarek udal mailan duten azpiegituraren berri emateko, besteak beste.

– Mozioa, Nafarroako Gobernua premiatzen duena Ebroko eskumaldeko ibaiertzean bigarren olio-erota eraiki dezan. Basterra Layana jaunak aurkeztu du. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

**LURRALDEAREN ANTOLAMENDU, ETXEBIZITZA
ETA INGURUGIRO BATZORDEA**

5ean:

– IU-EB Parlamentari Taldeak mozioa aurkeztu du Nafarroako Gobernua premiatzeko Foru Lege proiektu bat egin dezan negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketa gutxitzeko. Hori eztabaidatu eta bozkatzea.

**EKONOMI, OGASUN ETA AURREKONTU
BATZORDEA**

9an:

– Idazkaria hautatzea.

– Toki Administrazioiko Kontseilariaren agerraldia, Bozeramaileen Batzarrak hala eskaturik, 1998rako Nafarroako Aurrekontuei buruzko Foru Legearen proiektua dela-eta Toki Araubidearen Foru Batzordeak eman beharreko ziurtagirien berri emateko.

11, 12, 16, 17, 18, 19, 22 eta 23an:

– 1998rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Legearen proiektua eta hari aurkeztutako emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

– Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietatearen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

TOKI ADMINISTRAZIOKO BATZORDEA

11n:

– Idazkaria hautatzea.

– Toki Ogasunek Nafarroako tributuetan parte hartzeko fondoaren zenbatekoa eta banatzeko formula 1998ko eta 1999ko aurrekontualdietarako ezartzen dituen Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

16an:

– Bozeramaileen Batzarrak hala eskatuta, Toki Administrazioiko Kontseilariaren agerraldia, hurrengoaren berri emateko: Toki Azpiegituren arloko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektuaren eranskinean ageri diren toki entitateen zerrenda egiteko erabili diren irizpideen berri.

– Toki azpiegituren alorreko 1997-1999 Plan Bereziari buruzko Foru Lege proiektua eta hari aurkezturiko emendakinak eztabaidatu eta bozkatzea.

HEZKUNTZA ETA KULTURA BATZORDEA

18an:

– Hezkuntza eta Kultura Batzordearen bi ordezkari hautatzea Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntza Batzorde Nagusirako.

1997ko azaroan Biltzarreko Idazkaritza Orokorrean sartu diren dokumentuen zerrenda

1ean:

– Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreairen idazkia. Hauxe eskatu du: Herrilan Batzordearen hurengo bileran Telefonitari buruzko mozioa, azaroaren 25ean aurkeztua, eztabai-datzea.

– Sindikatuei joan-etorri eta dietengatik dirulaguntza emateko aurrekontu kontusailari buruzko galdera, Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak egina.

– «Unión del Pueblo Navarro», «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeen eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreairen idazkia. Harekin batera: erabaki-proposamena, gaitzespena agertzeko, Kubaren garapenari laguntzeko kontusail bat Estatu Batuetako Gobernuak blokeatu duela-eta.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoa aldatzeko Erabakia.

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkezturiko emendakina, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– Mozioa, Nafarroako Gobernuaren premiatzen duena Foru Lege proiektua aurkez dezan negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko. «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkeztua.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen idazkia. Harekin batera, erabaki-proposamena, Estatu Batuetako, Japongo eta Australiako gobernuengana jotzeko, klima-aldaketari buruzko proposamenak bete ditzaten.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleen ordainketei buruzko Foru Lege proiektua erretiratzen dutelako Erabakiaren egiaztagiria.

2an:

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa,

Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko osoko emendakina, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoak.

– «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoak.

– «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoak.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakina, Zenbait zerga, Pertsona Fisikoen Errentaren gainekoa, Ondarearen gainekoa, Sozietateen gainekoa eta Oinordetzaren gainekoa, alegia, hein batean aldatzen dituen Foru Lege proiektuaren gainekoa.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeko bozeramailearen idazkia, Pedro Eza Goyeneche jauna proposatuz Nafarroako Eskola Kontseilu edo Hezkuntzako Batzorde Nagusirako hautagai.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, 405/1997 Ebazpena, azaroaren 18koa, Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusiarena, aurrekontu -aldaketa baimentzen duena, kredituen transferentzia dela-eta.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, 406/1997 Ebazpena, azaroaren 18koa,

Garraio eta Telekomunikazio Zuzendari Nagusia-rena, aurrekontu -aldaketa baimentzen duena, kredituen transferentzia dela-eta.

– Osoko Bilkurak 97-10-29an harturiko Erabakian, hurrengo Ebazpena onetsi zuen: Estatuko Gobernuaren premiaztea SINTELen salmentan izenpetu ziren akordioak errespetatuko direla berma dezan. Lehendakaritza Ministerioko Idazkariordetzaren idazkia, goian esandako Erabakia jaso duela jakinarazteko.

– Osoko Bilkurak 97-10-2an harturiko Erabakian, hurrengo Ebazpena onetsi zuen: pertsonen aurkako minak egin eta erabiltzeko debekuari buruzkoa. Lehendakaritza Ministerioko Idazkariordetzaren idazkia, goian esandako Erabakia jaso duela jakinarazteko.

– Parlamentuko Osoko Bilkurak 97-11-13an harturiko Erabakian hurrengo instituzio-aitorpena onetsi zuen: Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardenaren aldekoa. Errioxako Gobernuaren idazkia hori jaso duela jakinarazteko.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, "Lurzorua eta etxebizitza erosi eta sustatzea" izeneko 93002-5 kontusailaren betetzeari buruzko galdera, José Miguel Nuin Moreno Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Lodosa, Mendavia eta Sartagudatik gertu, hondakin toxikoen zabortegia eta hondakinen transferentzia estazioa paratzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Babes ofizialeko etxebizitzak erosten dutenen onurei buruzko galdera, Pedro Uriz Lanz Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Cortestik hurbil industri uren tratamendu termikorako eta plastikuak birziklitzeko planta bat jartzeari buruzko galdera, José Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak eskaturiko informazioa, entitate ezberdinekin izenpeturiko hitzarmenei buruzkoa.

– Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Barne Zuzendari Nagusiak azaroaren 28an emandakoa 1339/1997 Ebazpena, kreditu-

lotespen maila ezberdineko kontusailen arteko aurrekontu-aldaketa baimentzen duena.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakina, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoa.

4an:

– Zarrakazteluko La Barbadako sakanean dagoen hondakindegia buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Corellako udalerrian garbiketa tunel bat jartzeari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Nafarroako erremolatxaren laborantzaren egoerari buruzko galdera, Jose Javier Sánchez Turrillas Foru Parlamentari jaunak egina.

– Fontellasko Udalaren idazkia. Harekin batera, hango Osoko Bilkurak harturiko erabakia, Mendebaldeko Saharan erreferendum aske eta gardenaren aldeko instituzio-aitorpenari buruzkoa.

– «Unión del Pueblo Navarro», «Socialistas del Parlamento de Navarra», «Nafarroako Demokraten Elkargunea», «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeek eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.

– Fermín Ciáurriz Gómez Foru Parlamentari jaunak eta Begoña Errazti Esnal Foru Parlamentari andreak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.

– «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakina, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen hurrengo mozioaren gainekoa: Nafarroako Gobernuaren premiatzen duena Foru Lege proiektua aurkez dezan negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko.

– Javier Morrás Iturmendi Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko emendakina, «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldearen hurrengo mozioaren gainekoa: Ebroko eskumaldean olio-erota kooperatiboa eraikitzeari buruzkoa.

– Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.

- «Socialistas del Parlamento de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.
 - «Unión del Pueblo Navarro» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.
 - «Ezker Abertzalea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.
 - «Nafarroako Demokraten Elkargunea» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.
 - «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldeak aurkezturiko emendakinak, 1998ko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektuaren gainekoak.
 - Martín Landa Marco Foru Parlamentari jaunak aurkezturiko emendakina, «Izquierda Unida-Ezker Batua de Navarra» Parlamentari Taldearen hurrengo mozioaren gainekoa: Nafarroako Gobernuaren premiaz duena Foru Lege proiektua aurkez dezan negutegi-efektua sortzen duten gasen isurketak gutxitzeko.
 - María Isabel Arboniés Bermejo Foru Parlamentari andrearen idazkia. Hauxe eskatu du: Lesaka eta Añorbeko erretaletan egindako zaharberritzei buruzko txostenen gaineko informazioa.
 - Diputatuen Kongresuko idazkia. Harekin batera, Biltzarreko Mahaiaren erabakia, pertsonen aurkako minak egiteko debekuari buruzkoa.
 - Kantabriako Eskualde Batzarraren idazkia. Harekin batera, Saharako erreferendum askearen aldeko instituzio-aitorpena jaso dutela adierazteko ofizioa.
 - Nafarroako Gobernuaren idazkia. Harekin batera, Enpresa publikoek egiten dituzten kontratazioei buruzko arau-proiektu bat lantzeari buruzko galdera, Miguel Angel Larráyo Lezáun Foru Parlamentari jaunak egina. Foru Diputazioaren erantzuna.
- 5ean:**
- Javier Carmona González jaunaren idazkia, Nafarroako "0,7"aren Batzordeek burututako eginbideen berri emateko.
 - Kontuen Ganbararen idazkia. Harekin batera, Tuterako Udalari buruzko fiskalizazio txostena, 1996ko ekitaldiari dagokiona.
 - Senideak-en idazkia. Harekin batera, euskal presoek egoerari buruzko txostena.
